# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## Udalak

### DULANTZI

889

**Udalaren biztanle erroldan ofizioz izandako bajak**

Dulantziko Udalak jakin du ondoren zehazten diren pertsonek udalaren erroldan izena eman dutela:

Cesar Augusto Dulanto Ojeda, Khalid Lamssefi eta Muhammad Usman. Pertsona horien helbidea eta ohiko etxebizitza ez datoz bat, ordea. Hori horrela, Gobernu Batzarrak, 2013ko urtarrilaren 23ko erabaki baten bidez, erabaki zuen ofizioz hastea espedientea pertsona horiei baja emateko udalaren biztanle erroldan, erabaki hori jakinaraztea eta espedientean entzunaldia ematea, hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Dulantzi, 2013ko otsailaren 14a.– Alkatea, JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA.

### AMURRIO

917

**Behin betiko onartzea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren udal zerga arautzen duen 7. ordenantzaren 2. eranskinaren aldaketa.**

Udalbatzak, 2012ko abenduaren 4ko osoko bilkuran, behinbehineko onarpena eman zion hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa (espedientea 12212C2214) arautzen duen udalaren 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 2. eranskinaren aldaketari. Behin-behineko onarpenari buruzko erabaki hori 149 zenbakiko 2012ko abenduaren 26ko ALHAOn argitaratu zen. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan araututakoaren ildotik erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko onartu eta argitaratu egiten da, halaxe xedatzen baitute apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan. Aldatu den zerga ordenantza honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra. Hona hemen hitzez hitz dioena:

**7.2 eranskina- Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasa**

**1. artikulua.- Izaera eta xedea**

Tasa honen xedea etxeetan, lokaletan, saltokietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak bildu, garraiatu eta tratamendua emateko zerbitzua ematetik dator. Bai eta eranskineko tarifan sartzen den eta legez toki erakundeek kudeatu beharra duten bestelako hondakin mota ere, zerbitzua ematen den modua edozein dela.

**2. artikulua.- Tasa ordaintzeko betebeharra**

1.- Izaera orokorrekoa eta nahitaezkoa da etxeetan, lokaletan, saltokietan eta zerbitzuetan sortzen diren hondakinak bildu, garraiatu eta tratamendua emateko zerbitzua, arriskutsuak ez diren hondakin komertzial eta industrietan sortzen diren etxekoen antzeko hondakinak kudeatzea barne. Hemendik kanpo geratzen dira industriakoak, eta

# ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Municipios

### ALEGRÍA-DULANTZI

889

**Bajas de oficio en el padrón municipal de habitantes**

El Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi habiendo tenido conocimiento de que la declaración de inscripción padronal de:

Cesar Augusto Dulanto Ojeda, Khalid Lamssefi, Muhammad Usman no coincide con el domicilio de residencia habitual, por acuerdo de la Junta de Gobierno de fecha 23 de enero de 2013 se acordó incoar de oficio el oportuno expediente para proceder a darles de baja en el Padrón Municipal de Habitantes de este municipio y comunicar el acuerdo dándoles audiencia en el expediente a fin de que puedan presentar las alegaciones pertinentes en el plazo de diez días a partir del siguiente a la publicación del presente anuncio en el BOTHA.

En Alegría-Dulantzi a 14 de febrero de 2013.– El alcalde, JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA.

### AMURRIO

917

**Aprobación definitiva de la modificación del Anexo 2 de la Ordenanza Fiscal Municipal número 7, reguladora de la Tasa por la prestación del servicio de recogida, transporte y eliminación de residuos sólidos urbanos.**

Transcurrido el plazo para la presentación de reclamaciones contra el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 4 de diciembre de 2012, y publicado en el BOTHA número 149 del 26 de diciembre de 2012, relativo a la aprobación provisional de la modificación del Anexo 2 de la Ordenanza Fiscal número 7, regulador de la Tasa por la prestación del servicio de recogida, transporte y eliminación de residuos sólidos urbanos (expediente 12212C2214), sin que se haya formulado reclamación alguna, de conformidad con lo establecido en el artículo 17-3 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, se eleva a definitivo dicho acuerdo, lo que se hace público a los efectos previstos en el artículo 70.2, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, y artículo 17-4 del citado Real Decreto Legislativo, con la publicación del texto modificado de la referida Ordenanza fiscal que surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOTHA, cuyo contenido literal es el siguiente:

**Anexo 7.2 - Tasa por la Prestación de Servicios de Recogida, Transporte y Eliminación de Residuos Sólidos Urbanos**

**Artículo 1.- Naturaleza y Objeto**

El objeto de esta Tasa lo constituye la prestación del servicio de recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos generados en los hogares, locales, comercios y servicios, así como cualquier otro residuo comprendido en la tarifa anexa y que por Ley sea obligatorio gestionar por las entidades locales, sea cual fuese la forma de prestación del servicio.

**Artículo 2.- Obligación de contribuir**

1.- Es de carácter general y obligatorio la prestación del servicio de recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos generados en los hogares, locales, comercios y servicios, incluyéndose la gestión de residuos comerciales no peligrosos y los residuos asimilables a domésticos generados en las industrias, excluyéndose de

etxeetakoak ez diren obretako hondakinak, eta material kutsatuak, erradioaktiboak edo arriskutsuak.

2.- Ez dira udal zerbitzuek bildu eta kudeatu beharreko hondakintzat joko, tarifatutako eskubide eta tasak aplikatzearen ondorioetarako, hondakin arriskutsuak, erradioaktiboak, eraikuntzakoak eta eraisteetakoak etxeetako obretakoak ez badira, eta industria lanketen ondoriozko hondakinak. Horrelako zerbitzua egitekotan, udalak kasuan kasuko tasa ezarriko du, hondakinak biltzeko zerbitzuaren kudeaketaren ardura duen udaleko atal teknikoaren txostena aztertu ondoren.

3.- 2.1 artikuluan definitutako zerbitzua ematean, ordaintzeko obligazioa zerbitzua emateak sorrarazten du, izan ere, orokorra eta nahitaezkoa izanik, Amurrion zerbitzua ematen den gunean dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titularrek edota erabiltzaileek horretaz baliatzen direla joko baita. Kasu horietan, higiezinean inor bizi ez bada ere, berdin ordaindu beharko da tasa.

**3. artikulua.- Subjektu pasiboak**

1.- Subjektu pasiboak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzua emateko eskatzen badute edo haren onuraz gozatzen badute edo hark eragiten badie.

2.- Zerbitzua 2.1 artikuluan xedatutakoa betez egiten bada, subjektu pasibo izango dira higiezinen okupatzaile edo erabiltzaile diren pertsona natural edo juridikoak. Higiezinak hutsik badaude, subjektu pasibo izango da higiezinaren jabea.

3.- Zerbitzu horiek ematea borondatezkoa denez, horiek eskatzen dituzten pertsona edo erakunde eskatzaileak.

**4. artikulua.- Sortzapena eta kudeatzeko arauak**

1.- Izaera orokorreko eta nahitaezko zerbitzuen kuota ezin da murriztu, eta hiruhileko natural bakoitzaren lehenengo egunean sortuko da.

2.- Hiru hiletik hiru hilera kobratuko dira kuotak.

3.- Borondatezko zerbitzuak emateagatiko kuotak baimena ematen den momentuan sortuko dira eta zerbitzua eman eta jarraian jasoko dira.

**5. artikulua.- Salbuespenak**

1.- Ez dute tasa hau ordaindu beharko Amurrioko Udalarenak eta Amurrion sartuta dauden administrazio batzarrenak diren higiezinak, erabilera dena delakoa izanik.

2.- Ez dira zergapetuak izango Amurrioko Udalarenak eta Amurrion sartuta dauden administrazio batzarrenak diren ondasunak, errenta kontratuz edo lagapenez erabili edo ustiatzen badira.

3.- Ez dira ordaintzetik salbuetsita egongo udalarenak edo Amurrion sartuta dauden administrazio batzarrenak diren higiezinak, etxebizitza edo merkataritza lokal modura badaude errentan.

**6. artikulua.- Tarifak eta aplikazio arauak**

Zerbitzua 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera egiten denean, hiru hiletik hiru hilera ordainduko dira hurrengo kuotak, epigrafearen azalpenean besterik jarri ezean:

1. epigrafea.- Etxebizitzak horrela erabilita, etxebizitzetarako diren zerbitzu zentroak (auzokoen erkidegoak, ur bero sanitarioaren zerbitzu komunitarioa, ibilgailuak gordetzeko lokalak…), irabazteko xederik gabeko aisialdi, kultura edo erlijio jardueretarako lokalak (txokoak, gazteen lonjak, gurtza lekuak…) eta beheko solairuko lokalak eta lonjak, beste epigrafe batean jasota ez dauden jarduerak egiten badira bertan: 17,79 euro/hiruhileko

2. epigrafea.- Ikastetxeak eta irakaskuntza zentroak, adibidez, jantzigintza, piano, dantza, eta hizkuntza akademiak, administrazio ikasketak, autoeskolak, eta abar: 22,19 euro/hiruhileko.

tal concepto los residuos de tipo industrial, los propios de obras no domiciliarias y materiales contaminados, radiactivos o peligrosos.

2.- No se considerarán como residuos a recoger y gestionar por los servicios municipales, a los efectos de aplicación de los derechos y tasas tarifados, los residuos peligrosos, los radiactivos, los de construcción y demolición no ligados a obras domiciliarias, así como aquellos otros, resultantes de elaboraciones industriales. En caso que se realice esta clase de servicio, se fijará la correspondiente tasa por el Ayuntamiento, previo informe de la sección técnica municipal responsable de la Gestión del Servicio de recogida de Residuos.

3.- En la prestación del servicio definida en el apartado 1 del artículo 2, la obligación de contribuir nace con la prestación del servicio que por tener condición de general y obligatorio, se considerará utilizado por los titulares y/o personas usuarias de viviendas, locales y establecimientos existentes en la zona en la que se presta el servicio en el término municipal de Amurrio (emplazados en zonas o calles donde se presten los servicios). En tales casos, la obligación de contribuir por esta Tasa se producirá aunque el inmueble estuviese desocupado.

**Artículo 3.- Sujetos pasivos**

1.- Son sujetos pasivos las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, que soliciten el servicio o que resulten beneficiados o afectados por aquél.

2.- En los casos en que la prestación del servicio se realice según lo establecido en el apartado 1 del artículo 2, tendrán la condición de sujeto pasivo las personas naturales o jurídicas ocupantes o usuarios de los inmuebles. En los casos de inmuebles desocupados, tendrá la condición de sujeto pasivo el propietario del inmueble.

3.- Tratándose de la prestación de servicios de carácter voluntario, las personas o entidades peticionarios de los mismos.

**Artículo 4.- Devengo y normas de gestión**

1.- La cuota por prestación del servicio, de carácter general y obligatorio, es irreducible, y se considerará devengada el día primero de cada trimestre natural.

2.- El cobro de las cuotas se efectuará trimestralmente.

3.- Las cuotas por prestación de servicios de carácter voluntario se devengarán en el mismo momento de autorizarse la prestación y serán percibidas inmediatamente tras la realización del servicio.

**Artículo 5.- Exenciones**

1.- Están exentos de esta Tasa los inmuebles propiedad del Ayuntamiento de Amurrio y de las Juntas Administrativas enclavadas en el término municipal de Amurrio, sea cual fuese su uso.

2.- Estarán exentos de tributación los bienes que el Ayuntamiento de Amurrio o Juntas Administrativas enclavadas en el término municipal de Amurrio utilicen o exploten mediante contrato de arrendamiento o cesión.

3.- No serán objeto de exención los inmuebles de titularidad municipal o de Juntas Administrativas enclavadas en el término municipal de Amurrio arrendados como viviendas o locales comerciales.

**Artículo 6.- Tarifas y normas de aplicación**

En los casos en que la prestación del servicio se realice según lo establecido en el apartado 1 del artículo 2 se abonarán trimestralmente las siguientes cuotas, salvo que en la descripción del epígrafe se establezca otra determinación:

Epígrafe 1.- Viviendas destinadas a tal fin, centros de servicios a viviendas (comunidades de vecinos, servicio de agua caliente sanitaria comunitario, locales de guardería de vehículos, etc.), locales dedicados a actividades recreativas, culturales o religiosas sin ánimo de lucro (txokos, lonjas juveniles, lugares de culto, etc.) y locales de planta baja y lonjas en los que se perciba que se realiza una actividad que no está recogida en otro epígrafe: 17,79 euros/trimestre

Epígrafe 2.- Colegios y centros de enseñanza, tales como academias de corte y confección, piano, baile, idiomas, estudios administrativos, autoescuelas, etc.: 22,19 euros/trimestre

3. epigrafea.- Gai guztien –elikagaiak izan ezik- txikizkako dendak, esaterako: kirol dendak, tabako dendak, botikak, filateliak, lore dendak, jostailu dendak, etxetresna elektrikoen dendak, loteriak, artile dendak, liburu dendak, mihise dendak, optikak, paper margotuen eta margoen dendak, lurrin dendak, aterki dendak, drogeriak, erloju dendak, oinetako dendak, altzari dendak, jantzi dendak, informatikako, telefoniako eta komunikazioko produktuak eta abar. Ile apaindegiak, apaindegiak eta masaje zentroak. Okindegiak, eta esne dendak. Gimnasioak. Olgeta jolasen aretoak. Jendearentzako ez diren biltegiak. Saltegientzako zerbitzu zentroak (saltoki gunea, merkataritza elkarteen bulegoak…): 29,98 euro/hiruhileko.

4. epigrafea.- Ostatuak eta pentsioak. Ontziratutako edarien eta elikagaien txikizkako dendak, okindegiak eta esne dendak izan ezik, esaterako, haragiak, arrandegiak, fruta dendak, ultramarino dendak, izozki dendak, gozo dendak, eta abar. Aseguru etxeak, bidaia agentziak, bulegoak, aholkularitzak, higiezinen agentziak, dekorazio estudioak, arkitektura estudioak, eta abar. Kontsulta medikoak, OLTak, psikologoak, logopedak, eta abar, nahiz eta etxebizitzetan kokatuta egon: 22,07 euro/hiruhileko

5. epigrafea.- Hiri lurzoru industrialean kokatuta dauden kafetegiak, tabernak, dastalekuak… Saltokiak, ingenieritzak, estudioak, zerbitzuen enpresak, komunikaziokoak eta abar. Industriak oro har, hala nola, aroztegiak, galdaragintza lantegiak, karrozeriak, txatartegiak, konponketa lantegiak, beirategiak, tapiztegiak, ibilgailuen konponketa, oinetako konponketak, tindategiak, gasolindegiak, zerbitzuguneak…: 38,15 euro/hiruhileko.

6. epigrafea.- Banku eta aurrezki kutxa agentziak. Zinemak, diskotekak, dantzalekuak, bingoak. Jatetxeak eta garagardotegiak. Bitxi dendak, notario bulegoak, larru dendak, klinikak, urre salerosketa: 42,93 euro/hiruhileko.

7. epigrafea.- Zerbitzu bereziak. Bide publikoan utzitako hondakinak kentzeak eta orubeak eta lokalak garbitzeak ondoko tasak sortuko dituzte, hondakin motaren arabera:

- Zabor arrunta: 360 euro tonako.
- Eraikuntza eta eraiste hondakinak: 180 euro tonako.
- Arriskutsuak ez diren beste hondakin batzuk: 270 euro tonako.
- Hondakin arriskutsuak: 1180 euro tonako.

**7. artikulua.- Kudeatzeko arauak**

a) Arau hausteak zerga ordenantza orokorrean ezarritako moduan zehatuko dira.

b) Zigorrak ezarrita ere, sortutako baina iraungi gabeko kuotak likidatu eta kobratu egingo dira.

**8. artikulua.-**

Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoenerako, Zerga Ordenantza Orokorra aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Hiriko hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuak ordaintzeko tasa arautzen duen 7.2 zenbakiko eranskinaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da hura indarrean, eta halaxe egongo da harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Amurrio, 2013ko otsailaren 15a.– Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

Epígrafe 3.- Comercios al por menor de toda clase de artículos a excepción de los de alimentación, tales como artículos de deporte, estancos, farmacias, filatelias, floristerías, jugueterías, electrodomésticos, loterías, lanas, librerías, mercerías, ópticas, papeles pintados y pinturas, perfumerías, paragüerías, droguerías, relojerías, zapaterías, muebles, boutiques, productos informáticos, de telefonía y comunicaciones, etc. Peluquerías, centros de belleza y centros de masaje. Panaderías y lecherías. Gimnasios. Salas de juegos recreativos. Almacenes cerrados al público. Centros de servicios a comercios (galerías comerciales, oficinas de asociaciones comerciales, etc.): 29,98 euros/trimestre

Epígrafe 4.- Hostales, hospedajes y pensiones. Comercio al por menor de bebidas envasadas, productos alimenticios, a excepción de las panaderías y lecherías, tales como carnicerías, pescaderías, fruterías, ultramarinos, heladerías, pastelerías, etc. Compañías de seguros, agencias de viaje, oficinas, despachos, asesorías, agencias de la propiedad inmobiliaria, estudios de decoración, arquitectura, etc. Consultas médicas, A.T.S., psicólogos, logopedas, etc. aun cuando se encuentren instalados en viviendas: 22,07 euros/trimestre

Epígrafe 5.- Cafeterías, bares, degustaciones, etc. Comercios, ingenierías, estudios, empresas de servicios, de comunicaciones, etc., situados en suelo urbano industrial. Industrias en general, tales como carpinterías, caldererías, carrocerías, chatarrerías, talleres de reparación, cristalerías, tapicerías, reparación de vehículos, reparaciones de calzado, tintorerías, gasolineras, estaciones de servicio, etc.: 38,15 euros/trimestre

Epígrafe 6.- Agencias bancarias y cajas de ahorro. Cines, discotecas, salas de fiesta, bingos. Restaurantes y cervecerías. Joyerías, notarías, peleterías, clínicas, compraventa de oro: 42,93 euros/trimestre

Epígrafe 7.- Servicios especiales. La retirada de residuos abonados en la vía pública y la limpieza de solares y locales devengarán las siguientes tasas, en función del tipo de residuo:

- Basura ordinaria: 360 euros/tonelada
- Residuos de construcción y demolición: 180 euros/tonelada
- Otros residuos no peligrosos: 270 euros/tonelada
- Residuos peligrosos: 1180 euros/tonelada

**Artículo 7.- Normas de gestión**

a) - Las infracciones serán sancionadas en la forma establecida en la Ordenanza Fiscal General.

b) - La imposición de sanciones, no impedirá en ningún caso la liquidación y cobro de las cuotas defraudadas y no prescritas.

**Artículo 8.-**

En lo no previsto en este Ordenanza, será de aplicación la Ordenanza Fiscal General.

DISPOSICIÓN FINAL

En Anexo nº 7.2, regulador de la Tasa por la Recogida, Transporte y Eliminación de Residuos Sólidos Urbanos, entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, y permanecerá vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación.

En Amurrio, a 15 de febrero de 2013.– La alcaldesa, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.

## ARRAIA-MAEZTU

**919**

### 2013ko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena

Udalbatzak, 2013ko otsailaren 8ko osoko bilkuran, erakunde honen 2013ko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako espedientea hamabost egunez izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik

## ARRAIA–MAEZTU

**919**

### Aprobación inicial del presupuesto general para el ejercicio 2013

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión válidamente celebrada con fecha 8 de febrero de 2013, acordó aprobar inicialmente el Presupuesto General de esta Entidad para el ejercicio económico 2013.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava, dicho expediente queda expuesto al público durante el plazo de quince días, contados a partir del siguiente